

# Euskaltel: espekulatzeko pizgarriak



JUAN MARI ARREGI

**M**asMovilek Euskaltel kontrolatzeko operazioa iragarri izanako erreakzio ekonomiko, sozial eta politiko ugari eragin du. Eusko Jaur-laritzarentzat eta EAJrentzat operazio "ona" izan da. Merkataritza Ganberako arduradunentzat ez hainbeste. EAEko legebiltzarreko oposizioko alderdi nagusiarentzat, EH Bildurentzat, "espoliazioa" da, eta euskal gizarteko sektore askorentzat "iruzurra". Zutabe hau sinatzen duenarentzat, biak izan dira operazioa hau: espoliazioa eta iruzurra. Euskaltel sortzeko erabili zen diru publikoa, orain funts putreen zerbitzura jarriko da. Are larriagoa da Eusko Jaur-laritzako arduradunak gezurretan ibili izana: Euskaltelek lurraldean errotuta jarraitzea bermatuko zutela agindu baitzuten.

Hala ere, beste gai bat azpimarratu nahi dugu hemen: Euskalteleko zuzendariak 26 milioi euroko pizgarria jasoko dute. Bi ikasgai. Lehena, zuzendariak bultzada eman zaie Euskaltelen etorkizunarekin espekulatzeko. Honenbestez, MasMovil elikatzen duten funts putreen kontrolpean jarri dute. Bigarrena, filosofia kapitalista muturreraino eraman da eragiketa honetan. Zuzendariak espekulatzeko pizgarriak eman dizkieten bitartean, langileez ahaztu dira. Funts putreetzat hain karamelu goxoa den enpresaren eraketan zerbait egingo zuten ba langile horiek, ala?

Argi dago: Euskaltelek eta bere arduradun politikoek kapitalismo gordin eta basak esandakoa egiten dute. Zuzendariak pizgarri handiak eman, eta gero, MasMovil taldearen bidez lanpostuak suntsitu eta enpresa deslokalizatuko dute. Une hori iristen denean, zeren eta iritsiko da, orduan ere jasoko dute milioi askoko saria. Kapitalaren legea da. ●



# Arrakala ederra jakobinismoan

▲ JENOFA BERTHOKOIRIGAIN

**B**ai, ederra eta historikoa izan da 2021eko apirilaren 8an Frantziako Legebiltzarrek hizkuntza gutxituen alde bozkatu izana. Legea oztopatzeko adierazpenak eta bideak errepikatu zituen gobernuak eta kontra bozkatzeko manua ere luzatu zuen, baina legearen alde egin zuen gehiengo zabalak. Arrakala Frantzia jakobinoaren paretan: hizkuntza gutxituetan bideratu murgiltze eredu Frantziako Hezkuntza Kodean sartuko da, eskola publikoetan lekuko hizkuntzetan bideratzen ahalko da hezkuntza.

Eskola izan du Frantziak herritarrak asimilatzeko erabili tresnarik eraginkorrenetarikoa. "Ez genekien hitz bat frantsesez eta errientsak frantsesa egin ahala laster ikas genezan nahi zuen. Punizioak bagenituen, aire hartzean ere euskaraz entzunez gero punituak ginen. Ez genuen euskara baizik etxean, eta frantsesa eskolan ikasi genuen, bortxaz". *Mintzoak.eus*-en entzungai den lekukotasuna dugu hori. Frantsesa ikasi eta euskara baztertu... trauma, beldur, zigor, irain eta gutxiespenengatik. Eta gauza bera bretoiera, alsaziera, okzitaniara, katalana, korsikera zein bestelako tokiko hizkera guztientzat –ahantzi gabe Frantziak kolonizaturiko lurraldetakoak–. XIX. mende erditsura arte gutxiengo ttipi batek mintzo zuen frantsesa guztian ahotara sartu digu Parisek: euskal hiztunak %20,5 gara, bretoiera mintzo du %5,5ak, okzitaniara %14ak... hizkuntza hauentzako inolako ofizialtasunik gabe. Etxeko hizkuntzan mintzatzeagatik eskolan zigortuak izan ziren haur guztientzat ere da lege hau.

Ahal zuen guztia egin du gobernuak bozketa oztopatzeko, errotik ez zuelako leku duinik –eta bizigarririk– bideratu nahi lekuko hizkuntzei. Urteetan zehar eta azken hilabeteetan areagoturiko xinaurri lanaren emaitza da bozketa: pazientzia handiz, jakobinismoak modelatu usteak gezurtatu eta gurea azaldu behin eta berri. Zeren argi gelditu dadila: alde bozkatu dutenen gehiengo zabala frantses definitzen da eta frantses elebakarra da –eta seguruenik, gisa horretako legeen kontra bozkatu ere du orain arte–. Zorionak xinaurri guztiei. Bidea luzea dugu oraindik, baina 2021eko apirilaren 8ak erakutsi digu Frantziaren paretan arrakalatzea ez dela ezinezkoa. ●